



Perdillatza (-a) *etxebizitza*

Aldacrak:

Ahozkoa: Perdillétza / Pérlitza / Pérlitzena



43° 10' 8"

2° 35' 34"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

*“... la casería titulada Perdilaza en el termino de la Anteiglesia de Berriz, es de una vivienda, ocupa una superficie con inclusión del antusano y franquicias quinientos veintiocho metros setenta y cinco centímetros...”
DJE 4/154 or. (1879)*

Garai batean gotzainaren etxea izandako baserri honen gaineko lehendabiziko erreferentzia Bizkaiko su-erroldean aurkitzen dugu, *Perdillaza de Uerfano* (1704), hortik aurrera aldaketa gutxi jasan duen izena da. Honako hau, XIX. mendearen amaieran *Perdilatz* (1892, DJE, 6/95. or.) topatzen dugu eta egun erabiltzen dena *Perdiletza* (1967, BUA, CE.) Ahozkoetan *Perdillétza*, *Pérlitza* eta *Pérlitzena* aldaerak mantendu dira.

XVII. mendean zabaldu zen tankerako baserri-etxea da, hiru gorputzez osatua. Alboetakoak harlangaitzaz eraiki ziren, harlandua kantale-tarako utziz. Erdialdean, oster, atarteak dauka, harkantioiek eutsitako egurrezko dintelaren babesean. Horren gainekoa, gaur egun luzituta eta zurituta dagoen arren, bere garaian

egurrezko egitura zuen, adreiluzko hormekin tartean. Harrigarri samarra bada ere, beheko solairuak leiho bakarra dauka. Eskuma aldean dago, oso harlandu dotoreez burutua, eta beste aldean itsua da, *Sakona* (**Ikus Sakona**) baserrian legez. Lehengo solairuan, berriz, lau leiho ditu, geroago ezarritako harrizko plaken bidez dotoretuak. Ganbaran, beste bi leiho ditu, ardatzaren alde banatan. Bi isurkiko teilatua duen baserri hau datatzeko, zenbait apaingarri har ditzakegu erreferentziazat; hain zuzen ere, atartean dagoen ezkerraldeko ateburuan, oinarri baten gainean gurutzeta, lorea eta giltzak ikus ditzakegu biribil batean sartuta. Azken elementu hori *Isuntzan* daudenekin pareka daiteke, 1678ko data daramatenak.

toponimia

Izen hau ia aldaketarik gabe heldu da gurera 1704ko sutebietatik, baina ez da, horregatik argiagoa. Lehenengo osagaia Perdi zer den ez dakigu, eta bigarrenetako aukera bi ditugu, latz adjektiboa eta artikulua edo olatza “etxola” hitza. Lehenengoak, latz, badu arazo bat eta artikulua da. Gure inguruan ohikoa izan da XX. mendean amaierako artikulua galtzea baina kasu honetan ez dugu Perdiolatz modukorik bildu 1892ko testigantza bakar batean izan ezik. Aurrekoa ikusita pentsatu behar dugu oinarrian olatza “estola” hitza daukaguna. Sorraluze gainean Atseginolatza izeneko baserria dago inguruan olatza hitza erabiltzen zenaren lekuko.